

MUSIKAREN EMAITZA

Errepika :
Zer alaiki, zer polliki
musika sortzen den !
Zein goxoki, zein ederki
beharriak pozten¹.


Pianoa jeikitzen da,
 erhien dantza da.
 Biolina atzartzen da
 zirrikaren lerra.
Errepika.

Hor gitarra ernatzen da,
 behatzak² trostaka
 ta xistua, xoriñoa,
 airearen gisa.

Errepika.
 Hemen haurra pausatzen da
 soinua entzun-ta.
 Oi musikaren emaitza
 guzien loria !

Errepika (bis).

¹ pozten : bozten
² behatzak : erhiak, hatzak



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua ikasi eta zuzen kantatu. Tresna bakoitzarentzat erritmo bat landu eta ikasi. Musika tresna bakoitza bereizi (audiokazeta entzunez), entzumena landu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. ◆ Motrizitate gaitasunak ikertu lehen musika tresnak baliatuz. ◆ Soinuen munduari adi izan ; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu. ◆ Soinu egite et entzute ihardueren arteko harremanari ohartu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere. ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Musika tresnak ezagutu eta izendatu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (iturak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea)

1. Hurrek, kantuaren gertakarien ordenari jarraikiz, kantua antzezten dute.

Haurrak errondan jarririk daude, apatx.



*Zer alaiki, zer polliki
musika sortzen den !
Zein goxoki, zein ederki
beharriak pozten.*

⇒
⇒
⇒
⇒



Errepika denboran kulunkatzen dira.

Beharriak hunkitzen dituzte.

*Pianoa jeikitzen da
erhien dantza da.
Biolina atzartzen da
zirikaren lerra.*

⇒
⇒
⇒

Haurrak xutitzen dira.
Piano jotzea mimatzen dute.
Biolin jotzea mimatzen dute.

ERREPIKA.

⇒

Haurrak jartzen dira.

*Hor gitarra ernatzen da
behatzak trostaka
ta xistua xoriñoa
airearen gisa.*

⇒

⇒
⇒

Haurrak xutitzen dira.
Gitarra jotzea mimatzen dute.
Xixtu jotzea mimatzen dute.

ERREPIKA.

⇒

Haurrak jartzen dira.

*Hemen haurra pausatzen da
soinua entzun-ta.
Oi musikaren emaitza
guzien loria !*

Haurrak etzaten dira eta begiak hesten dituzte.

2. Musika tresnak bakarka entzun eta, obra labur batean hurrek musika tresnak ezagutu behar dituzte eta izendatu edo mimatu.

☺ Kartetan agertzen diren musika tresnak margo itzazu.

Osatzeko ikus :

→ *Euskal musika tresnak* bideoa.

→ *Musique à la carte* : 2 kazeta/2 KD + karta joko + gida. Ed. J.M. Fuzeau.

